

204. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Kirolaren bidez
herria hezten**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Kirol azpiegituren berrikuntzak	3
Elkarriketa	6
Kirol plana, zergatik eta zertarako	8
Azpeitibili, adinekoak ariketa fisikoa egiteko programa.....	12
Eskola kirola, orientazio zerbitzua eta kirol egokitua.....	14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Kirol azpiegituren berrikuntzak


Azpeitian kirol alorrak duen garrantzia kontuan hartuta, ezinbestekoa da beharrezko azpiegiturak edukitzea, eta egoera onean mantentzea. Udalak kirol azpiegiturak hobetzeko helburu argia du, eta horretan dihardu urtez urte. Hala, aurren, hainbat hobekuntza egin dira bai azpiegiturretan bai zerbitzuetan, batzuk, gainera, herritarren ekarpenei esker.

KIROLDEGIKO IRISGARITASUNA HOBETZEKO IGOGAILUA JARTZEKO OBRAK

Maiatzean hasi ziren kiroldegiko irisgarritasuna hobetzeko obrak. Gaur egun eskailerak dauden eremuan igogailua egiten hasi dira; harmailetako solairuan metalezko pasabide bat ere egingo dute igogailutik, pasabidea bermatzeko. Aurreikuspenen arabera, hilabete honetan amaituko dituzte lanak. Azpeitiko Udalak 153.814,52€-ko inbertsioa egin du.

Azpeitiko Udalak kirol azpiegituren eta zerbitzuen hobekuntzetarako inbertsioak egin ditu 2022an ere.

Kirol azpiegituren berrikuntzak



KIROLDEGIKO ALDAGELAK ERABERRITZEA

Kiroldegia hobetzeko helburuarekin, bertako lau aldagela eraberritzeko obrak ere abian jarri dira aurtengo udan. Obren jarduketa-eremuak barne hartzen ditu aldagelak eta Squash-pistetara sarbidea ere. Guztira, 200 metro koadro inguruko espazioa eraberrituko dira. Horiek ere, irailean amaitzeko aurreikuspenarekin. Udalak 229.504,08€-ko inbertsioa egin du.


PILOTALEKUAK MARGOTZEA

Azpeitiko Udalak herriko pilotalekuak pintatzeari ekin dio, Urrestillako Txikuri frontoia eta Frontoi Txikia margotu dituzte dagoeneko. Hurrengo, Betharrametako pilotalekuaren txanda izango da



SKATE PARKEA

Azpeitiko Udalak gaur egungo parkean modalitate desberdinetan aritzen diren erabiltzaile eta zaletuen ideia, nahi eta beharretatik abiatuta garatu du proiektua, eta ekainaren erdialdetik zabalik dago Azpeitiko skatepark berria; uztailaren 9an inauguratu zen, eta uda osoan, hainbat eta hainbat lagunek erabili dute 1.130 metro koadro inguruko pista berria. 303.907,61€ko inbertsioa egin du udalak.



ROKODROMOAREN HANDITZE-LANAK

Udalak eta Sokaitz eskalada taldeak rokodromoa handitzea adostu zuten, udalerrian eskaladan aritzen diren herritarren kopurua nabarmen hazi dela eta. Lanen lehen fasea, hau da Udalak eremua egokitzeko lanak amaituta daude, eta orain Sokaitzek eskaladarako eremua handitzeko ekipamendua ezarriko du. Azpiegitura hau egokitzeko eta handitzeko 132.005€ko inbertsioa egin du udalak.

IGERILEKUKO GIMNASIO OSOAREN BERRIKUNTZA

Udaberrian gauzatu ziren obrak; lehengo material guztia kendu eta berriak ipini dira, eta gimnasioan Pixu libreko, kardiorako eta pisu gidaturako gunez gain, entrenamendu funtzionalerako gune berri bat ere egokitu da. Azpiegitura honetan, 88.554,58€ko inbertsioa egin du udalak.



SPINING GELA BERRITZEA

Igerilekuko spinning gela ere berritu da. Bizikleta guztiak berritu, eta, guztira, 25 bizikleta berri jarri dira. Horretarako 48.777,82€ko inbertsioa egin da.



“Kirolaren bidez herria hezten ari gara, eta hori denon konpromisoa da”

Kirolak gure osasunean ez ezik, herriaren beraren osasun
eta izaeran eragiten du

Egoitz Arruti

Kirol Saileko Batzordeburua

Azpeitian kirola eta ariketa fisikoa oso garrantzi handiko jarduerak dira. Nola dago antolatuta kirol arloan herrian?

Hiru kirolari mota daude herrian: norbere kabuz kirola egiten dutenak, Udalak antolatutako ekintzetan parte hartzen dutenak eta, azkenik, kirol talderen bateko kide direnak.

Kirol taldeen eta Udalaren arteko harremanak sendotzeko, eta, era berean, kirol taldeek elkarrekin dituzten harremanak indartzeko, duela urte batzuk Kirol Mahaia sortu zen. Bertan alde guztiek ditugun kezkak eta beharrak plazaratzen dira, nolabaiteko konponbidea emateko. Azpimarratu beharra dago kirol taldeetako kideek egiten duten esfortzua mahai horretan egoteko; eta interesgarria izango litzateke bestelako erabiltzaile eta herritarrak ere bertan parte hartzera animatzea.

Herriko Kirol Arloaren inguruko diagnostikoa egin ondoren, I. Kirol Plana jarri duzue abian. Zer helburu ditu plan horrek? Eta zein da orain arteko emaitza?

Bai, bazegoen herrian Berdintasun arloak 2014an egindako diagnostiko bat, hori berreskuratu eta ikusi genuen gauza batzuk bete zirela, baina kirol arloari

zehazki loturiko diagnostiko bat behar zela. Kirol plan orokor bat. Hori guztia kontuan izanda eta eragileekin kontrastatu ondoren, denen artean diagnostikoa eta plana lantzea erabaki genuen. Kirol arloaren inguruan jarduteko gidoi bat idaztea, eta bidez batez, orain eta etorkizunean hartu beharreko erabakietan laguntzeko ildo bat izatea zen gure asmo nagusia. Lanketa horretan denek hartu dute parte.

Esperotako emaitza jaso duzue?

Jaso diren emaitzei dagokionez, alde batetik, ikusi dugu Azpeitiaren antzeko ezaugarriak dituzten herriein alderatuta haien gainetik kokatzen garela, bai instalazioei dagokienez, bai ekitaldi eta ekintzei dagokienez ere. Taldeek lan handia egiten dute herriarentzat eta herritarrentzat, haiei esker dugu dugun herria. Beste alde batetik, gabezia batzuk agertu dira, eta horiek konpontzeko lanetan hasita gaude: esaterako, eskola kirolaren inguruan, martxan hasi gara hautemandako hutsuneak osatzeko; hain zuzen ere, Eskola Kirolaren plan estrategiko baten beharra nabaritu da, eta, ikastetxeekin elkarlanean, prozesu horren aurreneko pausoak ematen hasi gara.

Kirol Planean jasotakoa gauzatzeko herrian dagoen kirol azpiegituran berrikuntzak edo egokitzapenak egin behar izan dira, edo zer moldaketa eskatzen ditu?

Ondorioztatu denagatik, epe ertainean bai kirol instalazioetan bai kirol ekintzetan bestelako behar batzuk egongo dira; batik bat, kirolean arituko dena 50 urtetik gorako jendea izango da, eta bestelako beharrak izango ditu herriak instalazioei, aldagelei eta jardueren izaerari dagokienez. Hori horrela, garrantzia eman beharko zaie beste mota bateko saioei.

Horri lotuta, gaur egun, ari gara berrikuntza batzuk egiten. Esaterako, Landetako kiroldegian, lau aldagela berritu dira, eta igogailua jarri da; eta igerilekuan irisgarritasuna hobetzeko proiektuak eskatuta daude.

Helburu nagusia osasuna eta ongizatea ardatz duen eskaintza izatea izan behar da.

Udalarentzat garrantzitsua da herritar guztiengana iristea, kirol arloan ere adin tarte guztietarako eskaintza dago herrian, zergatik da garrantzitsua herritar denak partaide izatea?

Hori ezinbestekoa da, ariketa fisikoak edonoren bizitzetan dituen onurak izugarriak dira, ondorioz, denengana heltzen saiatzea nahitaezkoa da.

Hain zuzen ere, eskola kirolean hasten gara hazia landatzen, eta, hortik aurrera, edonork ariketa fisikoa egiteko aukera izatea da gure nahia. Eskola kirolan denei ematen zaie edonolako jardueratan parte hartzeko aukera, eta helburua ez da kirol batean nabarmentzea edo hobia izatea, baizik eta zenbait balio lantzea herriko hainbat kirol eskaintza ezagutuz. Zehatzago esateko, lortu nahi dena parte hartze aktiboa izatea haur zein eragileek elkarrekin, harreman onak izatea, eta bizitza osasuntsuago bat izateko zutabeak ezartzea litzateke.

Adinekoek ere berdin, hainbat programa ditugu martxan eta, egia esan, jende asko dabil denetan. Arrakasta handia dute; izan ere, gurearen antzeko herrien aldean, kirolari eta parte hartzeari dagokienez, oso goitik gabilta. Kirola Azpeitian oso sustraituta dago, asko bizi dugu.

Ariketa fisikoarekin denon bizi kalitatea hobetzea dugu helburu.

Nola uztartzen dira kirola eta osasuna? Zeri ematen zaio garrantzia?

Bien arteko muga oso lausoa da, ederrena izango litzateke denok argi izatea kirola neurri batean osasungarria izan daitekeela, hots, muturrera eraman gabe; lesioak eta halakoak saihesteko. Kontuan hartu behar dugu kirola edo ariketa fisikoa egiteak zenbat on eragiten digun; esaterako, koordinazioa lantzen dugu, nola eseri eta nola mugitu ikas dezakegu, gauza txikiak dira, baina gure egunerokotasunean eragin handia dutenak, eta ariketa fisikoaren bitartez hobetzen direnak; indarra lantzen da, gure egunerokoan zutik egoteko ere behar duguna, eta beste hainbat aspektu bizitza errazten digutenak. Hori guztia lantzeko beharrezkoak dira heziketa eta formazioa.

Zer proiektu dituzue aurrera begira?

Aurrera begira, asmo nagusia Kirol Plana gauzatzea da. Bertan markatutako helburuak betetzen joatea. Esan dugun bezala, gure erabiltzaileen profila aldatuz joango da eta horretara ahalik eta ondoen egokitzea izango da xedea, inor ahaztu gabe eta ahal den gehiena zabaldua.

Erronka garrantzitsuenetako bat izan daiteke eskola kirola herri osora zabaltzea, ez horrenbeste jarduera bera, baizik eta hor lantzen diren balioak. Kontziente izan behar du kirol arloan dabilen edonork, konpromiso bat daukala: herria hezten ari gara, kirolaren bidez, zer herri nahi dugun moldatzen dugu, herriari izaera bat ematen diogu, eta aparteko aukera da beste zenbait balio lantzeko, eta horren kontziente izan behar dugu, eta denok egin behar dugu ahalegin hori, harremanak hobetzen, haiek eta gu izan beharrean denak bat izaten, eta denon bizi kalitatea hobetzea helburu izaten. Bide horri jarraitu behar diogu.

Kirol plana, zergatik eta zertarako

2014an egindako diagnostiko batetik abiatuta, kirolari zehazki loturiko azterketa sakonago bat behar zela ondorioztatu zen, eta, gainera, kirol arloan jarduteko gidoia izango zen plan bat ere bai. Hortaz, lehenik eta behin azterketa eta diagnostiko bat egitea erabaki zuen Udalak inplikaturiko eragile guztiekin batera. Eta horretarako, honako alderdi hauek landu dira: demografia, kirol instalazioak, udal kirol zerbitzua, kirol eragileak: eskola kirola eta kirol klubak, bestelako eragileak, zeharkako faktoreak eta alderdi ekonomikoa.

01.


KIROL ESPAZIO, INSTALAZIO ETA EKIPAMENDUEI BURUZKO DATUAK

Udalerriak	Instalazioak guztira	Kirol espazioak guztira	Espazio osagarriak guztira	Biztanleak
Pasaia	19	43	60	16035
Azpeitia	40	105	83	15106
Andoain	20	45	60	14691
Bergara	31	67	80	14659

02.

UDALERRI MUGAKIDEEN KIROL ESPAZIO, INSTALAZIO ETA EKIPAMENDUEI BURUZKO DATUAK

- Jarduera eremuak
- Espazio bereziak
- Espazio konbentzionalak




03.

**BIZTANLE KOPURU ANTZEKOA
DUTEN GIPUZKOAKO UDALERRIEN
KIROL ESPAZIO, INSTALAZIO
ETA EKIPAMENDUEI BURUZKO
DATUAK**

Ratioa 1.000 biztanleko	Instalazioak guztira	Kirol espazioak guztira	Espazio osagarriak guztira
Azpeitia	2,648	6,951	5,495
Ingurua	3,687	7,029	6,049


Kirol espazioen tipologia



Alderdi horien guztian lanketak, **ondorio hauek ekarri ditu**, besteak beste:

- Udaleko Kirol Zerbitzuen eta Kiroletako Udal Patronatuaren funtzioen berrikuspena eta koordinazioa berrikustea.
- Kirol klubak, ikastetxeak eta Udal Kirol Zerbitzua ondo identifikatuta, sozializatuta eta ezarrita daude Azpeitian. Termino absolutuetan, Azpeitiko 2,16 biztanletik 1 udalerriko kirol erakunde edo egitura bateko bazkidea, erabiltzailea edo kirolaria da, eta hori oso indize altua da.
- Azpeitiko udalerriko kirol eragileen eskaintza aberatsa eta askotarikoa da, inolako kolektiborekiko diskriminaziorik gabe, bai kirol modalitate eta diziplinetan, bai parte-hartze motan. Kluben kasuan, ia eskusiboki, errendimenduari zuzenduta dago eskaintza hori. Alde horretatik, eskola kirolaren eskaintzak jarraipena izan behar du bi sexuentzat kirol ibilbide tradizionalan. Udal Kirol Zerbitzuaren kirol eskaintza argi eta garbi lotuta dago aisialdiera eta osasunera zuzendutako kirol zerbitzuekin. Eskola kirolean kirol eskaintza askotarikoa da, eta antolaketa egitura ahula du ardatz. Beharrezkotzat jotzen da eskola kirolaren tokiko egiturari buruzko hausnarketa egitea. Bestalde, beharrezkoa da eskola kirolaren eskaintzaren edukiak baloratzea, nesken parte hartzea hobetzeko. Lehiaketari lotuta ez dauden jarduera fisikoak sartzea baloratu egin beharko litzateke.

Kirol espazioen erabiltzaileen tipologia



Kirol plana aurrerantzean kirol arloan jarduteko gidoia izan da.

- Kirol klubek eta ikastetxeek, oro har, ez dute proiekturik edo plangintzarik kudeaketa, kirol planak, giza baliabideen eta baliabide materialen kontratazioa, talde teknikoen beharrezko prestakuntza, komunikazioa, baliabide ekonomikoak lortzea, aseguruak, genero berdintasuna, euskara, mugikortasuna, ziurtagiriak lortzea, datuen babesa, etab. barne hartzen duenik.
- Kirol eragileen kudeaketa ekonomikoa indartzea eta orientatzea, egungo egiturak edo sor daitezkeen egitura berriak sendotzeko.
- Kirol-klubek eta ikastetxeek aholkularitza eta orientazioa behar dute kudeaketaren arloan, beren kirol, ekonomia eta administrazio jarduerari dagozkienak, eta ez da baztertzeko laguntza tekniko ematea edo egungo egoera erregularizatzea ahalbidetuko duen irtenbide bat bilatzea, bai antolamenduari dagokionez, bai lan egoerari dagokionez.
- Udal Kirol Zerbitzuak instalazio guztiak kudeatu beharko lituzke, ez bakarrik helburu ekonomikoekin, baita gizarte eta kirol errentagarritasuneko helburuekin ere. Ez da zerbitzu publikoa izateko ikuspegia galdu behar, baina herritarrek jakin behar dute zerbitzuek kostu bat dutela, eta dagokion eran ordaindu behar dela.
- Azpeitiko kiroleko eta kirolaz kanpoko eragile guztien arteko koordinaziorik eta akordiorik eza egiaztatu da, eta egoera hori giza baliabideen optimizazioaren kalterako da (boluntarioak, kidego teknikoak,...), baita baliabide material eta ekonomikoen eta parte hartzearen kalterako ere. Ildo horretatik, gomendagarria litzateke Udal Kirol Zerbitzuak errendimendu handiko taldeak dituzten klubekin hitzarmenak sinatzea.
- Baigeraren eta Osakidetzaren parte hartzea mantentzea eta indartzea, Azpeitiko Udalaren eskutik, etorkizuneko tokiko kirol esparruan, osasun helburuak eta sedentismoaren aurkakoak dituen jardueren fisikoaren sare egonkor eta sozializatzaile baten muina izan liteke. KOZak zeregin garrantzitsua izango luke prozesu honetan.

I. KIROL PLANA: ILDO ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-ILDOAK ETA JARDUERAK

1. Jarduera fisikoa eta kirola egitea sustatzea herritarren artean.

01. Parte hartze eta koordinazio egiturak definitzea eta sortzea.

02. Herriko kirol eskaintza prestatzea.

03. Herritarrekin komunikatzeko bideak ezartzea kirol eskaintza ikusarazteko.

04. Sailen eta erakundeen arteko kanpainak sustatu.

2. Jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskaintzara iristeko erraztasunak eman.

05. Azpeitiko Udalerria kirol espazio bihurtu

06. Kirol jarduna familiarentzako jarduerekin konbinatu.

07. Sinergiak sortu kirol zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuekin.

08. Kirol eskaintza zabaltu Azpeitiko erakunde eta enpresetara.

09. Kirol eskaintza herriko beste jarduera batzuekin koordinatu

10. Herriko kirol sistemaren iraunkortasun ekonomikoa arautu.

3. Kirol eskaintzaren eta zerbitzuen kalitatea hobetu.

11. Kirol instalazioen parke bat jarri herrian, herriko kirol eskaintza bermatze aldera.

12. Kirol instalazio guztien kudeaketa zentralizatu.

13. Kirol eragileen giza baliabideak birdimentsionatu

14. Kirol eragileei zuzendutako prestakuntza planak bultzatu.

15. Baliabide zentro bat sortu kirol elkarteen, kirol ekitaldi eta jardueren antolatzaileentzat eta eskola kiroleko egiturarentzat.

16. Diziiplina anitzeko zerbitzu bat ezarri aldi baterako, kirol elkarteei, kirol ekitaldi eta jardueren antolatzaileei eta eskola kiroleko egiturari kudeaketan laguntzeko.

17. Kirol eragileen gizarteratzea formalizatu.

18. Jarrera proaktiboa izan udalaz gaindiko ekimen eta programetan.

19. Eragile aktiboak izan berdintasun, mugikortasun, euskara eta turismo gaietan.

20. Azpeitiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plana ebaluatu urtero.



Azpeitibili, adinekoak ariketa fisikoa egiteko programa

AZPEITIBILI, OSASUN IBILBIDEAK, ADINEKOENTZAKO PROGRAMA

Adinekoen jarduera fisikoa eta autonomia eta giza harremanak bultzatzeko programa da Azpeitibili, osasun ibilbideak egitasmoa.

Udalak 2014an jarri zuen abian nork bere mailaren eta gaitasunaren arabera ibiltzeko ohitura hartzeko helburua duen egitasmo hau. Eta ordutik hona, taldean oinez ibiltzeko eta harreman berriak egiteko aukera dute hainbat eta hainbat lagunek.

Bizitzako aldi guztietara egokituriko kirol eta ariketa fisikoa eskaintzen da herrian.



ZERTAN DATZA

Astean bi egunetan, astelehen eta asteazkenetan, udaletxeko arkupetan egiten dute hitzordua 10:00etatik 11:30era, taldean oinez ibiltzera irteteko. Askorentzat, bakarrik egingo ez luketen ariketa egiteko aukera da, gidatua eta lagunekin izanik, errazago animatzen baitira. Saio dinamizatuak dira eta herriko bidegorri eta pasealekuetan barrena gauzatzen dira. Saioak begirale baten gidaritzapean egiten dira, eta errazak dira egiteko; alegia, gaitasun maila ezberdineko pertsonen egiteko modukoak dira. Horrez gain, hileroko bestelako irteera edo ekintza bereziren bat ere antolatzen dute. Gainera, oinez ibiltzea errutinazko jarduerara bihurtu ez dadin, hainbat estrategia ere lantzen dira ibilbideak diseinatzerakoan: mapa topografikoak, orientazio jolasak, etab. Beste udalerrri batzuetako ibiltariekin topo egiteko egunak ere antolatzen dituzte.

Saioak 60 urtetik gorakoentzat antolatuak dira, eta doakoak dira, eta parte-hartzaileek hainbat opari jasotzeko aukera izaten dute egindako ibilbide kopuruaren arabera: motxilak, aterkiak, etab. Gaur egun, 15 bat lagunek parte hartzen du egitasmo honetan. Irailtik ekainera bitarteko programa honetan parte hartu nahi duenak, aipatutako egun eta orduetan udaletxeko arkupetara agertu besterik ez du egin behar.

Parte hartzaile askorentzat terapeutikoa ere bada saio hauetan parte hartzea

Izan ere, garrantzitsua da udalarentzat jarduerak fisikoa adin guztietako biztanleen artean sustatzea, eta ariketa fisikoa egitea ohitura bihurtzea herritarrengan. Jarduera arrakastatsua da, eta jende askok hartzen du parte, eta martxan dagoen urte hauetan guztietan, parte hartzaile kopurua handituz joan da.



azpeitibili

Eskola kirola, orientazio zerbitzua eta kirol egokitua



Jarduera fisikoak pertsonen bizimodua alda dezake eta, ondorioz, gizartearena. Hori horrela, bizimodu aktiboa sustatu nahi du Udalak. Herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea lortu nahi da, eta horretarako, parte-hartzaileen bizi-ohitura aktiboa sustatzen da sendatarismoa murrizteko. Horren guztiaren ildoan antolatu dira honako egitasmo eta programa hauek:

KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA

Eusko Jaurlaritzak bizitza aktiboa sustatzeko eta sedentarismoari aurre egiteko "Mugiment" estrategiaren baitan kokatzen den egitasmoa da. Estrategia honen ardatz nagusia da pertsonen bizi-ohituretan eta jokabidean aldaketa eragitea. Horregatik, estrategia honetako programen ondorioz, bai zuzeneko kirol-eragileek bai faktore sozialetan eragiten duten eragileek batera eta zeharka lan egiten dute, batez ere osasunean, gizarte-ekintzan eta hezkuntzan. Azpeitiko Udala 2017an hasi zen zerbitzu hau eskaintzen.

Zertan datza

Jarduera fisikoa egin nahi baduzu, baina nondik hasi ez badakizu, aditu batekin aukera daukazu kirol orientazio zerbitzuan; berak gidatuko zaitu, eta lagundu eta jarraipena egingo dizu. Doako zerbitzu honen ordutegia honako hau da:

Astelehena, osteguna, ostirala: 09:00-13:00.

Asteartea: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00.

Asteazkena: 15:00-18:00

Eta **hitzordua** 688 845 119 telefonoan lor daiteke.

ESKOLA KIROLA, ESKOLA KIROL EGOKITUA, ESKOLA KIROL INKLUSIBOA

Haur kirol-egilearen hezkuntza-garapena osatzea da programa honen helburua; bai eta kirolari bakoitzaren banakako beharrianak asebetetzea ere. Hala, eskolako kirolak haurren heziketa integrala bilatuko du, beren sarbidea eta parte hartzea bermatuz berdintasunez eta sexu-estereotipo eta roletatik kanpo; haurren nortasuna

Kirola egiten duten haur eta gazteen hezkuntza-garapena osatzea dute helburu programa hauek.

era harmoniatsuan garatzea bilatuko du, bai eta nagusiagoa denean ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea eta bizimodu osasuntsua eramatea bermatuko duten baldintza fisiko eta kirol ohitura batzuk eskuratzea ere.

2021-22 ikasturtean 711 ikaslek hartu dute parte egitasmo honetan, LH1etik 6, mailara artekoak, Jolashezi eta kirol anitzak edo multikirola formatuetan.

Ikasturte honetan ere beren burua ohiko eskola-kirol eskaintzatik kanpo ikusten duten ikasleentzat EKE eta EKI bailarako programa jarri da abian. Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako kirol egokituko Federazioa eta Marea Urdinaren lankidetzari esker.

EKE-EKI, Eskola Kirol Egokitua eta Eskola Kirol Inklusiboa

EKE, aniztasun funtzionala duten ikasleei egokituriko Eskola Kirola programa da, aurtengo ikasturtean 2 ikaslek hartu dute parte.

EKI, aniztasun funtzionala duten ikasleen inklusiorako programa da, eta aurten ikasle batek hartu du parte.

8 eta 12 urte bitarteko ikasleentzako programak dira, astean bi saio izaten dira eta ikasturte osoan zehar luzatzen da, eta izena ematea eta informazioa zeinek bere ikastetxeko eskola kirol koordinatzailearekin lotu behar du.

JARDUERA FISIKO ETA KIROL EGOKITUA

Jarduera hau Udal Kirol Patronatuko jarduerak eskaintzaren barnean antolatzen da.

Nerabe eta gazteei zuzenduriko eskaintza hau Udal Kirol Patronatuaren jardueren eskaintzaren barruan dago, eta aurten 8 lagunek hartu dute parte.

Ikastaroen helburua da kirol patronatuan praktikatzeko diren hainbat ekintza aniztasun funtzionala duten pertsonen egokitzeko eta normalizatutako ekintzetara bideratutako inklusio ahaleginak eta probak egitea. 12 urtetik gorakoentzako eskaintza da eta astean bi saio egiten dira: astelehen eta asteazkenetan, 17:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 19:00etara, urritik ekainera arte, udal igerilekuan. Informazioa eta izena ematea igerilekuko harreraren egin daiteke.

GAZTE KIROL PROGRAMA (GKP)

Programa honen helburua da DBHrako jautzia egitean, herrian dagoen kirol federaturako eskaintzaz gain, jarduera fisiko eta kirol ekintza ezberdinak probatzeko aukera berria ematea, 12-16 urte bitarteko neska-mutilek beren aisialdia modu aktibo, osasungarri eta lagunartean garatu ahal izateko.


Astean saio bat izango dute 12-16 urte bitarteko gazteek eta herriko instalazio eta eremu ezberdinetan jardungo dute, paddlea, boleibola, judo-karate, eta abarreak.

2021-2022 ikasturtean 12 gazte aritu dira programa honetan.

Informazioa **943 81 30 69** telefonoan edo **azpeitiagazteKP@gmail.com** helbidean.



KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE ORIENTACIÓN DEPORTIVA



www.azpeitia.eus

SUSTAPEN EKONOMIKORAKO LAGUNTZAK

**550.000€ herriko ehun ekonomikoa
sustatzeko**

Enpresa txiki eta ertainentzako, lehen sektore,
merkataritza, garraiolarientzako laguntzak

Berdintasuna, digitalizazioa, lehiakortasuna,
inbertsioak... lagunduko dira diruz.

Urriaren 31, eskaerak egiteko azken eguna.